

# UDALETIK

Informazio buletina 6 zk.

MAIATZA 2018



euskal eskola publikoaren 27. jaia lekeition  
ekainak3

**ehige**  
gurasoen elkartea

euskaleskolapublikoarenjaia.eus

- Udalaren egoera ekonomikoa
- Aparkaleku erreserbatuak herritarrentzat
- Portua kotxe gabe
- Gazteek alokairuak ordaintzeko laguntzak
- San Andres auzoko obrak
- Santa Katalina ibilbidea (3. fasea adjudikatuta)
- Udalekuak 2018

## ZAPRAN GAGOZ JAIA

Ekainaren 3an Euskal Eskola Publikoaren 27. Jaia ospatuko dugu Lekeition, "Zapran gagoz" lema pean.

Euskal Eskola Publikoaren Jaia urteko jarduerarik haundiena da Eskola Publikoa osatzen dugun familientzat, Euskal Eskola Publikoa hezkuntza-sistemaren ardatza izan behar dela aldarrikatzen baitugu jai giroan.

Ikasturtearen hasieratik lanean ari gara hezkuntza eta kultura jarduerak antolatzen baita Jaiaren egitaraua borobiltzen.

Ekainaren 3an adin guztietarako jardueraz gozatzeko aukera izango dugu: pailazoak, ikuskizun musikalak, kontzertuak, jolasak, puzgarriak, tailerrak, kirolak..... denetari eta denontzako!

Gurekin izango dira besteak beste: Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Txan magoa, Trikizio, The Uski's, Axi Muniain (surflaria eta skaterra), herriko txarangak eta txistulariak, Reperkusio feministak abar luze bat.

Zatozte zuek ere Euskal Eskola Publikoaren alde!!!

*EHIGE, BIGE, Lekeitioko Eskola eta Institutuko Guraso Elkarteak.*

## LEKEITIO ZEURE ERARA egiteko!



@Lekeitio\_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus




facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

Gastu Konparatiboa





# UDALAREN EGOERA EKONOMIKOA

## Aurrezki neto positiboa eta ordainketak egunean

2017ko datu ekonomikoak hala diote, Lekeitoko Udalaren ekonomi eta finantza egoera ona da. Aurrezki neto positiboa izan du eta horrez gain, egunean dago bere hornitzaileei egin beharreko ordainketei dagokienez. Baldintza hauek medio, Udalak inbertsioak egin ahal izateko, kredituak eska ditzake. Hala egingo du adibidez San Andres auzoa barrizatzeko. Bestalde, 2017ko aurrekontuaren likidazioa egitean, gastu orokorren partidan diruzaintzako geldikin likidoa ere badago, Udalak beste inbertsio batzuren finantziarioari ere aurre egin ahal diolarik.

Ekonomia saneatua lortzeko, Udalak ondoko neurriak hartu ditu:

- Gastuen razionalizazioa bultzatu izan du, batez ere plangintzaren, helburuen eta emaitzen kulturaren bitartez.
- Udal Kirol eta Kultur erakundeak desegin zituen, zerbitzuen arrazionalizazioa eta administrazioaren eraginkortasuna bermatzeko eta baita kostuetan aurrezpena lortzeko.
- Garavillako garageak saltzeko plangintza egin du.
- Ezohiko diru sarrerak lortzeko apustua egin du, beste erakundeetako proiektuak azalduz eta hauetarako dirulaguntzak lortuz; honi esker, udal gobernuak inbertsio politika indartzen jarraitzen du herriko etorkizuneko proiektuak garatzeko.
- Ogasun saila indartu egin da giza baliabide gehiago jarri baitira errekurso ekonomikoak modu eraginkorragoan eta azkarragoan lortzeko.



KONTZEPTUA	Aurreikusitakoak	Egindakoak
<b>Personal gastuak</b>	3.193.618,00 €	3.191.057,89 €
<b>Gastu arruntak:</b> eraikinak, makineria, instalazioak, garraioak, bulego materiala, elektrizitatea, erregaia, garbiketa, komunikazioak...	2.720.966 €	2.761.424,78 €
<b>Interesak</b>	14.410 €	12.207,76 €
<b>Tranferentzia arruntak:</b> Eskola, ikastola, mankomunitatea, garapen agentzia, elkarte eta beste batzuei dirulaguntzak...	782.412 €	721.585,81 €
<b>Inbertsioa:</b> Eskola, Santa katalaina, gasolindegia, kaleak..	562.145 €	951.265,40 €
<b>Kredituen amortizazioa</b>	540.050 €	528.034,66 €

# APARKALEKU ERRESERBATUAK HERRITARRENTZAT

Aurten 366 aparkaleku prestatuko dira, iaz baino 137 gehiago

**A**urtengo udan ere, iaz izandako harrera ona kontuan izanda, herritarrentzako prestatutako aparkaleku zerbitzua martxan jarriko du Lekeitioko Udalak.

Egitasmoak helburu du udaldian udalerritik kanpo lan egiten duten herritarrek herrira bueltatzean euren autoa aparkatzeko **aukera gehiago** izatea. Lekeitioko bizilagunetatik gain, herrian enpresa bat dutenek edo bertan behar egiten dutenek ere aparkaleku zerbitzuaren onuradun izateko txartela eskatu ahaliko dute.

**Ekainaren 1tik irailaren 30era bitartean**, egun horiek ere barne, bereziki herritarrek erabiltzeko aparkaleku guneak zehaztuko ditu uda-

lak. Astelehenetik barikura 14:30etik 21:30etara herritarrek aparkatu ahaliko dute soilik zehaztutako gune horietan.

Bestalde, laugarren paragrafoan jarri hau mesedez data bat aldatu da eta: Lehentasun hori izateko, baina, baldintza batzuk bete beharko dira, eta aparkatzea baimentzen duen **txartel bat** eskatu behar da herriko Turismo Bulegoan. Eskaerak egiteko epea zabalik egongo da **maiatza-ren 8tik ekainaren 7ra** bitartean, martitzenetik barikura, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Bestalde, iaz txartela eskatu zuten pertsona eta enpresen tramitazioa errazagoa izango da, beharrezko do-

kumentazioa ekarri eta momentuan berriztuko baita. Txartelaren prezioa 3 eurokoa izango da, eta hurrengo 2 urteetarako balioko du.

**Guneak.** Bost izango dira Lekeitioko Udalak aparkaleku zerbitzu berezia eskaintzeko egokituko dituen guneak: **Paskual Abaroa** etorbidea 26-bisetik Talara, eta **San Juan Talako; Eusebio Maria de Azkue** (San Bizente Ferreretik San Andres auzora) eta **Basoaldea; Zumatzeta, Buenaventura Zapirain, Otxoa de Urkiza** eta **Agirre Solarte** 1etik 17ra; **Aldamiz Etxebarria** 22, 24 eta 26 eta **Letraukua** 8 eta 9; **San Antolin** 2, 3 eta 5eko aurreko aldean eta 7-11 bitartean

## PORTUA KOTXE GABE

**Ekainaren 1etik aurrera urte guztian eta etenik gabe, portua oinezkoen gune bihurtuko da**

2017ko udan, portua trafikoarentzat itxi egin zen astegunetako arratsaldeetan eta asteburuetan egun guztian zehar. Lehenbiziz, uda sasoi osoan portua oinezkoentzat gune bihurtu zen urteetako herritarren eskariari erantzunez.

Ekimen hau hasieran ekainaren 28tik irailaren 10era arte irautea aurreikusitua zen baina **izan zuen arrakasta** ikusita, urriaren 1era luzatu zen.

Ekimenak arrakasta izan du herritarren artean, oinezkoek herriko gune ikusgarri hau irabazi dutelako baina bestalde goizetan kaian lanean aritu zirenak ere pozik agertu ziren, zereginak lasaiago egin ahal izan zituztela adierazi baitzuten.

Hori horrela, 2018an ere ekimena indarrean jarriko du Lekeitioko Udalak baina indarraldiak aldaketa nabarmena izango du: **2018ko ekainaren 1etik aurrera sartuko da ekimena berriz indarrean baina urte guztira zabalduko da**, ekimenak ez du etenik izango. 2018ko ekainaren 1etik aurrera arratsaldean eta asteburuetan, itsasertzeko aldean (Marina tabernatik komandantzia parera arte) ezin izango da aparkatu. Eguerdiko 14:30etik hurrengo goizeko 8:00ak arte debekatuta egongo da aparkatzea. Jai egunetan egun guztian zehar egongo da aparkatzeko debekua. Astegunetan, goizetan, trafikoari eta zama lanetarako zabalik egongo da.

Herrian daukagun lekurik ederrenetako bat oinezkoentzako eskuratu da. Nahiz eta aspaldiko helburuetako bat izan, orain arte ez da neurririk hartu. Gainera, gogoan izan behar da 2016. urtean egindako Pasaia Planaren parte hartze prozesuan aldarrikatzen zen ekimena izan dela berau.



@Lekeitio\_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

# FUTBOL ZELAIA HANDITZEKO AUKERAK AZTERTZEN

Lekeitioko futbol taldearekin batera, Lekeitioko Udalak, egungo futbol zelaia handitzeko aukerak aztertuko ditu.

2018ko aurrekontuetan belarra aldatzeko aurreikuspena bazegoen ere, futbol taldeko Zuzendaritzaren eskariari jarraituz, zelaia handitzeko aukeren azterketa egitea adostu dute erakunde biek.

Azterketa, hurrengo hilabeteetan egingo da eta emaitzak ikusita, eman beharreko ondorengo pausuak erabakiko dira.



## Lekeitiok, herri lagunkoia izateko partehartze prozesuan murgilduta jarraitzen du

Lekeitioko Udalak, herria adineko pertsonekin lagunkoia izatea nahi du, adin guztietarako izango baita onuragarri, DENONTZAT beraz. Laburbilduz, Lekeitio egunerokoan bizitza erreztan duen zerbitzu, harreman, kaleak etab eskeintzen dituen herria izatea lortu nahi da.

Horretarako herritarren iritzia batzeko otsailean hasitako partehartze prozesuarekin jarraitzen du.

Lekeitio herri lagunkoia izateko herritarrengana jo zuen Udalak partehartze prozesu bat zabalduaz. Taldeetan antolatuta, otsailaren 22an eta martxoaren 15ean Barandiaran Aretoan, herriaren eta herritarren beharrak aztertu ziren. Hainbat herritar eta alor ezberdinetako eragileek parte hartu zuten. Guztira 62 pertsona batu ziren aire zabaleko guneak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, sareak eta gizarte-laguntza, enplegua eta partaidetza, errespetua eta gizarteratzea, komunikazioa eta informazioa eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak aztertzeko. Partehartze prozesua ez da horretan geratu eta:

- Herritar bakoitzak bere **etxean** inkesta bat jaso du, ekarpenak egin ahal izateko. Inkestok Udaletxean, Udaleko edozein eraikinetan edota baita herriko beste toki batzuetan ikusgarri dauden "Lekeitio Lagunkoia" logoa daukan edozein buzoitan entregatu ahal dira. Herritarrek inkesta entregatzea ezinezkoa badute, 94 603 41 00 telefono zenbakira deituta, inkesta batzera hurbilduko da urtean zehar proiektuan lanean dabilen talde eragilea.
- **Udaletxean, Udaleko edozein eraikinetan** edota baita **herriko beste toki batzuetan** ikusgarri dauden "Lekeitio Lagunkoia" logoa izango duen edozein buzoitan ere inkestak eskuragarri daude.
- Udaleko **webgunean eta sare sozialetan** inkesta zintzilikatuta dago, "Lagunkoitasunari buruzko galde- sorta" atalean, momentuan erantzunak bidaltzeko.

**Apirilaren 10etik maiatzaren 9ra arte** ekarpenak egiteko epea zabalik egongo da. Ondoren ekarpenok batu eta landu egingo dira eta **ekainean emaitzen aurkezpen zabala** egingo zaio herriari.

Emaitzen arabera, detektatutako arazoei irtenbidea emateko, ekintza plana diseinatuko da eta honetarako berriz ere partehartze prozesua zabalduko du Udalak 2018ko azken hiruhilabeteetan.



# ESKOLA PUBLIKOAN HOBEKUNTZA LANAK EGINGO DIRA UDAN

Segurtasun neurriak  
bermatzeko 60.000,00 euro  
inbertituko dira

Lekeitioko Herriko Eskolako eraikin gorriko leihoak aldatu ondoren azken bi urteetan, aurtengoan, uda sasoiari, Lekeitioko Eskolak bete beharreko segurtasun neurriak eta gaur egun betetzen ez dituztenak burutzeko obrak egingo ditu udalak. Beraz, aurtengo udan, 60.000€ inbertituko dira herriko eskolan segurtasun neurriak betetzeko; adibidez, txirrina eta argiteria aldatu, ateetan "quitamiedos" deritzenak ipini, eskaileretako barandauak jarri, etab.

Urte hasieran, patio handiko kolunpio barriak jarri ziren eta haurreskolako patioa kolunpioak konpondu, honek, 42.970 euro suposatzen zuten. Bukatzeko, kolorinetako eskola barrutik pintatuko da eta beste hainbat inbertsio txiki ere egitarituko dira.

Aipatutako obrez gain, Eusko Jaurlaritzakin hurrengo inbertsioak adostu dira: alde batetik jantokitik irteera zuzen bat egitea, hau da, emergentzia irteera egitea eta bestetik, Ateako eskoletako teilatua konpontzea. Obra hauek ere uda sasoiari egingo dira.



## LEKEITIOKO ANDREN AURRESKUA "EGUZKI-DANTZA/JAIA" BERE JATORRIRA BUELTAN

Ekainaren 24an, ohitura berreskuratuz, belaunaldi ezberdinetako emakumeek dantzatuko dute merezi duen lekua emateko

**A**urten badira, 43 urte, gerra ostetik lehehengo aldiz aurreku zoragarri hau dantzatu zutela herriko emakumeek plazan (urtebete lehenago Zerutxu Dantza Taldeak berreskuratu zuen, berau dantzatu izan zuten emakume lekeitiar eta hauen familien laguntzarekin) Urte hartatik gaur egunera arte, ehundaka emakume baino gehiago arduratu dira inoiz Andren Aurreku hau falta ez izateaz. (Eta batek daki aurretik zenbat emakume egin duten lan, tradizio hau gal ez dadin, izan ere, 1682-koan baitira lehenago aipamenak udal agirietan)

Soka dantza hau berezia da arrazoi ezberdinengatik: inguru hauetan osotasunean mantentzen den bakarra da (musika originala eta gerra aurreko emakumeengandik jasotako pausuak dituelarik), emakumeek bakarrik dantzatzen dute eta bere jatorrian hiru aldiz dantzatzen zen, eta jantziak be bereak ditu.

Ez da kasualitatea "Eguzki-dantza/jaia" izenaz ere ezaguna izatea, izan ere, San Juan egunean, udako solztizioan, dantzatzen zen eguzkiaren omenez. Lehenago dantzaldia goizaldeko meza ondoren egiten

zen, eguzkia irtetean, perkalezko gona arrunta eta sorbaldetan zetazko xal txikiak jantzirik. Bigarrena eguerdiko meza nagusiaren ondoren, eguzkiak bere punturik altuena lortzen duenean. Oraingoan aldiz, jantziak aldatzen dira, gona beltz luzea, gonazpiko zuri brodatua, baska zuria, zapata beltzak "malporteskua" eta krespoiko manto dotoreak janzten dira. Azken dantzaldia errosario ostean, eguzkia sartzean dantzatzen zen eta honetan, eguerdiko jantzi berdinekin baina mantoiak kaxemirrezko handiengatik aldatuz.

Inoiz, Emakume Aurreku hau ikusteko aukera izan duzuenok, ohartuko zifituen gaur egun San Pedro egunean dantzaten dela. Baina aurten, Etorkizuna Dantza Taldeko kideek San Juan eguneko ohitura berreskuratu nahian, ekainaren 24rako ekitaldi berezia prestatu dute. Horretarako 1975etik gaur arte dantzatu duten emakumeak bildu dituzte, belaunaldi ezberdinetako 50 emakumetik gora batu be, denen artean Andren Aurreku honek merezi duen lekua emateko asmoz. Dantzaldiak hurrengoak izango dira: 6:30etan Talan, 13.00etan eta 20:00etan Plazan.



@Lekeitio\_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus




facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

5

# AMA DOMINIKEN FUNDAZIOAREN 650. URTEURRENA



**Uztailaren 7an, elizbarrutiko emakumezko komunitaterik zaharrenak 650 urte ospatuko ditu**

**S**anto Domingo komentua garrantzitsua bezain ospetsua da Lekeition. Izan ere, herriaren eta komentuaren historia elkarri lotuta egon dira azken sei mende eta erdian (1368-2018).

Santo Domingok Juana Ibañez de Arsuaga bermeotarraren ekimenari zor dio bere sorrera. Izan ere, honek emakumezko fededun-komunitate bat sortu nahi izan zuen eta 1368an horretarako baimena eskatu zion Calahorrako Gotzaingoko bikario nagusiari. 1421ean komentuak gaur egun duen izena zuen jada. Garai hartan, bere tenplua kapera txiki

bat besterik ez zen. Komentuak orokorrean aldaketa ugari eza-gutu ditu ordutik hona, eliza eta dependenziak barne, nahiko xumea da. Hala ere, ezin dugu ahaztu monasterio honetakoa dela elizbarrutiko emakumezko komunitaterik zaharrena. Gainera, ibilbide luze eta aberatsa du, Lekeitioko monasterio hau izan baitzen, urte batzuk beranduago, Bilbokoaren, Ermukoaren (gaur egun Elorrion) eta Kexaakoaren (Araba) sorreraren jatorria. Aurtan, uztailaren 7an zehazki, Dominiken konbentuak 650 urte beteko ditu.



## GAZTEEK ALOKAIKURUA ORDAINTEZKO DIRULAGUNTZAK IZANGO DITUZTE AURTEN ERE

**Eskaera epea zabalik dago azaroaren 16ra arte.**

Ukaezina da etxebizitza eskuratzeko arazoa dela gazteek emantzipatzeko daukaten oztopo nagusienetakoa eta beraz, Lekeitioko Udalak ahaleginak egin behar ditu etxebizitza politika publikoaren bidez alokairua sustatzeko.

Izan ere, alokairua sustatzea funtsezkoa da etxebizitza eskuragarriagoa izan dadin. Horregatik lan egin beharra dago etxebizitza arloan konponbideak eskaintzeko. Zehazki arazoizko prezioan alokairuan emateko etxebizitzaren aldeko apustua egin beharra dago eta eskubide hori bermatzeko ezinbestean administrazioa subjektu aktiboa izan behar da.

Hori dela eta, pasa den urtean Lekeitioko Udalak 18 - 35 urte bitarteko adina duten eta Lekeition bizi diren gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak martxan ipini zituen lehenbiziz. Aurtan, aurre-

kontua 10.000.-eurotan igo da eta beraz, guztira 25.000.-euro bideratuko dira.

Gazteei zuzendutako diru-laguntza programa honekin lortu nahi dena da behar diren egoerak sustatzea gure gazteek arazoizko prezioan etxebizitzak errentan hartu ahal izan dezaten eta, horrela, AUTONOMIA eta EMANTZIPATZEA lortzen laguntzea.

### **DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK**

Ezinbestean 18 - 35 urte bitarteko adina izan behar dute elkarbizitza unitateko kide guztiek, unitate horretan bizi diren menpeko adin txikikoak izan ezik, eta elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonetako bat gutxienez Lekeitioko udalerrian egon beharko da erroldatuta, gutxienez bi urteko ete-nik gabeko antzinatasunarekin.

Gainera, diruz lagunduko den etxebizitza Lekeitioko udal mugartean egon beharko da eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko

du. Hala ere, salbuetsita egongo dira hilean 650,00.-euroko zenbatekoa gainditzen duten alokairuko etxebizitzak eta urte bete baino gutxiagoko iraupena duten alokairu kontratuak.

### **DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

2018. urtean deialdi honetarako aurreikusitako kopuru osoa 25.000,00.-eurokoa da eta gazteei zuzendutako alokairurako laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik ematen dituzten aldi bereko diru-laguntzarekin.

Diru-laguntzaren zenbatekoa gehienez ere hilabete bakoitzeko 100,00 eurokoa izango da eskaera bakoitzeko eta gehienez 12 hilabeteko epealdi baterako.

### **ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK**

Deialdirako eskaera epea zabalik dago eta hala egongo da 2018ko azaroaren 16ra arte. Informazio gehiago: [www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus)

# SAN ANDRESEKO AUZOA BERRIZTEKO OBRAK EKAINEAN HASIKO DIRA

**Obrek 10 hilabeteko iraupena izango dute eta 1.800.000,00 euro inguruko inbertsioa izango da**

**S**an Andres auzoak irisgarritasun falta, inguruarekiko konexio traktetsa eta urbanizazio zaharkitua ditu, beste hainbat arazoaren artean. Hori horrela izanik, Lekeitioko Udalak auzoa berriztatzeko konpromisoa hartu zuen eta azken hiru urteetan horretan ibili da buru belarri lanean. Hiru urteko prozedimendu administratiboa eta gero (lurrak eskuratu, auzokideekin proiektua disenatu eta zehaztu, alderdi politikoen adostasuna lortu, proiektua egin, proiektua aukeratzeko kontsulta egin, e.a..), aurtengo ekainean, San Andres auzoko obrak hasiko dira. Obrak hamar hilabeteko iraupena izango dute eta 1.800.000 euro inguruko inbertsioa. Bestalde, hiru urte hauetan, San Andres auzoa Eusko Jaurlaritzaren aldetik, "lehenasunezko eskuhartze gunea" izendatzeko lanak burutu izan dira. Lan honen emaitza, 2018ko otsailaren 27ko aginduaren bitartez heldu zen izendapen hau lortuz.

Izendapen honen bitartez Lekeitioko Udalak daukan helburua diru-laguntzak jasotzerako orduan abantailak izatea da, bai Udalarentzat auzoa urbanizatzerako orduan eta baita auzo-

kideentzat ere etxebizitzetan edota eraikinetan egin beharreko hobekuntzetarako; hala nola, irisgarritasun eta eraginkortasun energetikoaren aldeko hobekuntzak egiteko orduan.



## BIZIKLETAN IBILTZEKO PLANA

**Lekeitioko Udalak 2007an bizikletan ibiltzeko landu zuen plana berrikusiko du**

Bizikletaren erabilera sustatzeko helburuarekin, aurten Udalak 2007tik daukan plana berrikusi eta eguneratu nahi du.

Gaur eguneko tarreak aztertu egingo dira eta irtenbideak eman, adibidez:

- Ikastetxe eta Ateako zerbitzu gunea erdigunearekin eta Paskual Abaroarekin lotzeko.
- Bizikletan ibiltzeko loturak Paskual Abaroa kaleko berriztatzean integratzeko (Juan Bautista Eguskitza eta Txatxo Kaiaren elkargunean)
- Santa Katalinarekin loturak egoteko (Paskual Abaroa, Itsasargia eta bere instalazioen elkargunean).
- Erdigunea eta Karraspio hondartza lotzeko (Sabino Arana eta Paskual Abaroa, Karraspio hondartza joateko herri muga Abaroa eta Santa Elena etorbidea)
- Bizikletan ibiltzeko loturak Iñigo Artieta kaleko egokitzetan integratzeko.

Partehartze prozesu bat ere zabalduko da herritarren ekarpenak batzeko.



@Lekeitio\_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508



## MUSIKA

# ESKOLA BULTZATZEN

**Udalaren eta Musikaiaeren arteko hitzarmena musika formazioa bultzatzeko**

Lekeitioko Udalak eta MusiKaia Musika Elkartek lankidetzat hitzarmena sinatu dute. Udalak, Lekeitioko herritarrei zuzendutako musika formazioa sustatu nahi du, herriko musika tradizioa galdu ez dadin, sormena gizarte garapenerako guztiz aberasgarria dela ulertzen baitu.

Hitzarmen honekin, Udalak urtean 25.000 euroko diru-laguntza emango dio musika elkarteari. Gainera, MusiKaiari bere jarduera aurrera eramateko instalakuntzak ere utziko zaizkio.

Era berean, musika elkarteak, urtean zehar hainbat emanaldi egiteko konpromisoa hartu du eta, baita ere, ikasleen matrikula egitean lekittarrei lehentasuna ematearena ere.

### MUSIKA ESKOLA GAZTEGUNEAN.

Gazteguneko eraikinari asteen zehar erabilpen gehiago eman nahian, 2017. urtean, Udalak, proiektu bat enkargatu zuen gazteguneko ekintzak eta musika eskolakoak uztartzeko. Gaur egun, Gaztegunek asteburuetan bakarrik eskeintzen ditu bere zerbitzuak eta aste barruan eraikina zarratuta dago.

Musika eskolak duen arrakasta ikusirik eta zerbitzu honi eraikin finko bat eman nahian, konpatibilitate edo bategarritasun proiektu bat idatzi zuen Udalak, aktibitate biak mantentzeko helburuarekin.

Gazteguneko eraikina moldatzeko obrak aurten hasiko dira eta faseka egingo dira. Aurten, maiatzean, Udalak, 50.000 euro inbertituko ditu eraikinean lehen obrak egiteko.

## UDA HONETAN, SANTI BROUARD KIROLDEGIA DOMEKETAN ERE ZABALIK EGONGO DA

Aurtengo udan, Santi Brouard Udal Kiroldegia domeketan ere zabalik egongo da goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00 etara. Jai egunetan berriz, itxita egongo da.

Trinkete Etxeko piszinak, ez du aldaketarik izango eta urteroko ordutegia mantenduko du, beraz udan itxita egongo da domeka eta jaia egunetan.

## SANTA KATALINA IBILBIDEAREN 3. FASEA 2 HILABETETAN BUKATUKO DA

Lekeitioko Udalak, Santa Katalina ibilbidea luzatzeko proiektuan aurrerapausoak ematen jarraitzen du. 3. fase honetan, oinezkoentzako bidea kulunka edo kolunpioen aurrealdetik pasatuko da, herriaren eta gunen honen arteko bidea osatuz.

Fase honetako lanek 2 hilabeteko iraupena izango dute eta aurrekontua 143.675,62 €-koa izango da. Obrak adjudikatu dira eta ekainean hasiko dira.





# 2018KO UDALEKUETARAKO EPEA ZABALIK

**Lekeitioko Udalak antolatzen dituen udalekuetan apuntatzeko epea maiatzaren 3an zabalduko da, maiatzaren 25era arte.**

Lehentasuna Lekeition erroldatutakoak izango dute eta plazak mugatuak izango dira (inskripzioa noiz egin den edukiko da kontuan).

Lehen hezkuntzako maila guztietako haurrei zuzenduta daude.

**Uztailaren 2tik abuztuaren 31ra** izango da eta txandak astekoak izango dira (astelehenetik ostiralera). Gutxieneko umeen ratioa betetzen ez den astean ez da udalekurik egongo.

Udalekuan 10:00etatik 13:00etara haurrek hainbat jarduera egingo dituzte: txangoak, ur jolasak, kirola, tailer kulturalak, adierazpen tailerrak, jolas kooperatiboak, ...

Lekeition erroldatutakoak txandako (asteko) 70 euro ordainduko dute eta kanpokoek 90 euro.

Izen emate fitxa Lekeitioko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar da haurren osasun txartelaren kopiarekin batera. Bulegoak 9:00etatik 14:00etara egongo dira zabalik.

Informazio gehiago; udaletxean bertan, 946034100 telefono zenbakira deituta.

## DATOZEN KIROL HITZORDUAK

### SPINNING MARATOIA

Aurten ere, spinning maratokia antolatuko da. **Ekainaren 24an** izango da hitzordua eta eguraldia lagun bada, partehartzaileak, Abadeen moilan goizeko 10:00etatik-13:00etara, itsasoari begira ibiliko dira pedalei eragiten.

80 bizikleta jarriko dira eta aurretiaz apuntatu beharko da Santi Brouard Udal Kiroldegian. Partehartzaile bakoitzak kamiseta bat jasoko du.

Bestalde, likidua eta janaria ere eskuragarri izango dute partehartzaileek.

### BIZKAIKO KOPA TRAIL

Bizkaiko kopa trail ospatuko da hirugarren urtez herrian, zehazki, **azaroaren 4an**.

Lau modalitatek osatzen dute proba: Txakurkrosa, BTT montain bike eta ibilbide luze eta laburreko mendi martxak.

Egunean bertan apuntatzeko aukera egongo da baina aurretiaz [www.bizkaiakopatrail.com](http://www.bizkaiakopatrail.com) orrialdean egin ahalko da inskripzioa.

# KALATXORIEN POPULAZIOA KONTROLATZEKO KANPAINA MARTXAN

**Herritarren kolaborazioa eskatzen da teilatuetako habiak lokalizatzeko**

Kalatxorien populazioa kontrolatzeko kanpaina maiatze-tik uztailera egingo da, sasoi honetan jartzen baitituzte arraultzak kalatxoriek. Bi aldiz jartzen dituzte arraultzak eta bi aldiz kendu behar izaten dira (batzutan hiru ere bai). Kanpaina honen bitartez, habiak non dauden lokalizatu eta arraultzak kendu egiten dira kalatxori kopurua kontrolatu ahal izateko.

Lan hau egiteko, Lekeitioko Udalak enpresa bat kontratatu du eta nahiz eta, gutxi gorabehera, habien zentsu bat egon, herritarren laguntza ezinbestekoa da hauek lokalizatzeko.

Hau horrela, etxeko teilatuan edo auzoko teilatuetan habiak daudelaren susmoa daukaten herritarrei, udaletxean hauen berri emateko eskaera luzatzen die Lekeitioko Udalak.

Jakinarazpena udaletxera bertara etorrita edota [udala@lekeitio.eus](mailto:udala@lekeitio.eus) helbide elektronikora mezu bat idatziz egin dezakete. Eskerrik asko.

## HERRIKO HORMEN GARBIKETA

2017. urtean herrian egindako pintadak garbitzeak 19.585,93 euroko gastua suposatu du eta baita udal langileen orduen lan kostua ere. 2017an besteak beste, apirilaren 2, 12, 21,22, ekainak 14, uztailak 8, 9, 21, 22, 23, 24 eta 25, abuztuak 1, 5 eta 6, irailak 23, 24 eta urriak 8an garbiketa lanak egin zituzten udal langileek eta kontratatutako garbitasun enpresak.

## LEKITTON BIZI, HERRIAN EROSI, DANOK IRABAZI

Lekeitioko Udalak eta "Kitto" Lekeitioko Merkatarien elkarteak berriki lankidetzaz-hitzarmena sinatu dute, bi helbururekin:

Alde batetik, tokiko komertzioetako salmentak sustatzea, elkarteak aurkeztutako Ekintza Planeko ekintza estrategikoak bultzatuz, besteak beste "Bono Denda" kanpainak eginez.

Eta bestetik, elkarteari eguneroko gestioan laguntzea: horretarako Udalak, baliabideak jarriko ditu Lea Artibai Garapen agenciarekin elkarlanean.



@Lekeitio\_Udala



[www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus)



[youtube.com/LekeitiokoUdala](https://youtube.com/LekeitiokoUdala)



[udala@lekeitio.eus](mailto:udala@lekeitio.eus)



[facebook.com/LekeitiokoUdala](https://facebook.com/LekeitiokoUdala)



656702508



## SKATE PARK LEKEITION

Gazteen urteetako eskariari erantzunez, Skate park bat egiteko konpromisoa hartu zuen Udalak. Azken urtean, Ranpa Bako taldearekin batera, Skate Park egiteko tokia zehazten ibili da Udala. Merkatu Plazaren goiko solairuan daude momentuz skate praktikatzeko ranpak.

Aurten, Skate Park bat egingo da Larrotegi auzoan, Futbol zelai inguruan. Skate Park hau egiteko, 60.000 euro inguruko inbertsioa burutuko du Udalak. Obrak, maiztean hasiko dira eta 5 astetan bukatuta egongo dira.

## HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA (HAPO)

**Ekainean hasierako onarpena emango zaio**

Lekeitioko Udala, Hiria Antolatzeko Plan Orokorrekin aurrera doa. "Irizpide eta helburuei buruzko dokumentua" onartu ondoren, ekainean gutxi gora behera hasierako onarpena emango zaio HAPO berriari, ondoren jendeaurrean jarri eta alegazioak jaso. Fase honetan, HAPOak eremu bakoitzeko parametroak zehazten ditu: behin betiko erabilerak, eraikigarritasuna, altuerak, kudeaketa eta abar, eta proposamen partikularren xehetasunetan sakontzen du.



## LEKEITIOKO GAZTEAK ETA LOKALAK

**Gazteek erabiltzen dituzten lokalen arautzeari ekin zaio, segurtasun eta gutxiengo osasun baldintzak bete ditzaten**

Gazte lokalen fenomenoak begi bistakoa da eta azken urteetan ugartu dena. Errealitate sozial honek kezka ugari sortzen ditu biztanleriaren artean segurtasunaren, substantzia ezberdinen kontsumoaren edota jokaera arriskutsuen ikuspuntutik. Baina, Lekeitioko Udaletik uste dugu debekua eta arautegi zorrotzak ezartzea ez dela bidea.

Hori horrela izanik, gazteen ahalduntzea, entzute aktiboa eta gardentasuna oinarritzeko printzipio bezala kontutan hartuz, LEKEITIOKO GAZTE LOKALAK izeneko ekimena hasia da martxan. Ekimen honek hurrengo helburuak ditu:

1. Gazteen eta Lekeitioko Udalaren arteko akordioan oinarritutako gazte lokalen arautegia sortzea.
2. Gazteen eta Lekeitioko Udalaren arteko hartu-eman zuzena sortu eta sustatzea.
3. Gazte lokaletan segurtasun baldintza minimo batzuk bermatzea, erabiltzaile eta auzokideen lasaitasunerako.

Gizarte Heziketan adituak diren profesionalak pasatu dira Lekeitioko gazte lokaletatik. Bertako gazteekin izandako hartu emanarekin, lokalen egoera eta gazteen beharrezkoak identifikatu dituzte. Hurrengo pausua Udalaren eta gazteen arteko prozesu parte-hartzailearen bitartez gazte lokalen arautegia sortzea izango da.





**URAREN KALITATEA: ONA**  
(azken 4 denboraldien emaitzetan oinarrituta)



**BAINUA HARTU DAITEKE** – Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hondartza honen ura astero aztertzen du.



# LEKEITIOKO ISUNTZA HONDARTZA ZERBITZUAK BAINU DENBORALDIAN

**2018ko ekainaren 1etik irailaren 30era**

## ZERBITZUAK:

- SOS postua.
- Umeak hondartzan ez galtzeko pultserak.
- HONDARTZA DENONTZAT programa: bainatzeko laguntza pertsonala edo materiala emateko (uztailean eta abuztuan).
- Kotxeentzako aparkalekuak: Arropain, saihebidetako 3 aparkalekuak eta herrian zehar.
- HONDARTZARAKO BUS ZERBITZUA (geltoki bakoitzean jarriko da ordutegia):
- Bizkaibus/Lurraldebus geltokitik Isuntza hondartzara: Mandaska, Arropain, Saihebidetako bus aparkalekua, Telefonica, loar, Uribarren Jauregia hotela.
- Isuntza hondartzatik Bizkaibus/Lurraldebus geltokira: Uribarren Jauregia hotela, Bonilla, Telefonica, Saihebidetako bus aparkalekua, Arropain, Mandaska.
- Santa Katalinatik Isuntza hondartzara: Txaletetako izkina, San Andres, loar, Uribarren Jauregia hotela.
- Isuntza hondartzatik Santa Katalinara: Uribarren Jauregia hotela, Beitia, Merkatua, Palmera, txaletetako izkina.

Isuntza hondartza Bizkaiko hondartzen kudeaketa integratuko sisteman sartu zen 2006an, eta **ISO 9001 (Kalitatea) eta ISO 14001 (Ingurumenaren kudeaketa)** ziurtagiriak lortu zituen. Geroztik, urtez urte berriro dira, horretarako araututako prozedurak bete ostean, "Hondartzaren Kudeaketa" jarduerarako.

**Zerbitzuaren kalitatearen hobekuntzan eta ingurumenaren errespetuan lanean jarraitzea da Lekeitioko Udalaren helburua, guzti honek erabiltzaileen gogobetetasuna asetzen lagunduz.**

Hondartzaren erabilpen egokia bermatzeko, Lekeitioko Udalak bere erabilera arautzeko ordenantza onartu zuen (2014/05/08ko BAOn argitaratuta). Honez gain, Kalitateari eta Ingurumenari buruzko Politika Integratuak hondartza modu egokian kudeatzeko oinarri orokorrak ezartzen ditu. Lekeitioko Isuntza hondartzako erabilera-araubidea eta jarduerak arautzen dituen Udal Ordenantza eta Kalitateari eta Ingurumenari buruzko Politika Integratua [www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus) web orrian aurkitzen dira.



**Debekatuta dago dutxetan xaboa erabiltzea**  
Prohibido utilizar jabones en las duchas



**Debekatuta dago sua piztea**  
Prohibido encender fuegos



**Debekatuta dago motordun ibilgailuak sartzea**  
Prohibido el acceso a vehículos motorizados



**Debekatuta dago hondakinak baimendutako lekuetatik kanpo botatzea**  
Prohibido arrojar residuos fuera de las zonas autorizadas



**Debekatuta dago hondartzetan kanpatzea**  
Prohibido las acampadas en zonas de playas



**Debekatuta dago ezarritako ordutegian arrantza egitea**  
Prohibido la pesca en el horario dispuesto



**Debekatuta dago zarata nekagarriak egitea**  
Prohibido realizar ruidos molestos



**Debekatuta dago etxe-abereak sartzea**  
Prohibido el acceso a animales domésticos

## HONDARTZAKO UR KONTSUMOA 2018

**2018an iazko datuak mantentzea helburu**

2017an, Lekeitioko Udalaren helburuetako bat hondartzako **dutxetako ur-kontsumoa %5ean** jaitea izan zen. Hondartzak **82.000 erabiltzaile inguru** izaten ditu uda sasoian eta erabiltzaile **bakoitzak gutxi gora behera 22 litro eguneko** kontsumitzen ditu. Hori horrela, Isuntza hondartzako erabiltzaileei **uraren erabilera egokia** egin zezatela eskatu zitzaizen kanpaina ezberdinen bidez.

Uda denboraldia bukatu ondoren eta Lekeitioko Isuntza hondartzako datuak aztertu ondoren, 2017ko ekainaren 1etik irailaren 30era arte 85.542 erabiltzaile izan zituen hondartzak eta erabiltzaileko ur kontsumoa **%31,86an jeitsi** zen. **Erabiltzaile bakoitzak eguneko 12, 88 litro ur kontsumitu** zituen hondartzan. Beraz herritarren eta bisitarien kontzientziario eta inplikazioarekin helburua soberan lortu zen.



@Lekeitio\_Udala



[www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus)



[youtube.com/LekeitiokoUdala](https://youtube.com/LekeitiokoUdala)



[udala@lekeitio.eus](mailto:udala@lekeitio.eus)





[facebook.com/LekeitiokoUdala](https://facebook.com/LekeitiokoUdala)



656702508

# GARAJEAK SALGAI



Atea Kalea 34an  
(lehengo Garabilleneko eraikinean)

## **INFORMAZIOA**

Lekeitioko Udaletxean  
Bulego Teknikoan  
Tel.: **94 603 41 00**